

Udako betebeharrei jarriak

I

Bizi garenez irudiari
makurtzen zaion munduan
berokipean diximulatuz
lasaitu arren neguan,
konplexu eta izan beharrak
ugaltzen dira buruan
lehen ezkutuan zeuden guneak
bistaratzeko orduan.



XDZ

IV

Eguzki izpiek hainbat gaitz nola
bihurtu dituzten bere,
eguzkitako krema ematean
nahiz behar lukeen lege
batere eman gabe're total...
Beltzarantzea da xede!
Horretarako azal guztia
galdu behar bada ere.

II

Iazko galtza motzak ez daude
lehenago bezain eroso...
Nolako drama! Zabaldu gara
hiru milimetro oso!
Soluzioa sinplea eta
eskuragarria oso...
Gu laguntzeko beti prest daude
mila dieta milagroso.

V

Depilatzeko ezinbesteko
premi larrien adiktu
burua ez den iledun gorputz
atalik ezin luzitu.
Nahiz eta beste zeozer zela
pentsatzen luzaz aritu...
Tximuak eta pertsonak nonbait
ileak bereizten ditu.

III

Alkatxofaren dietarekin
arin sentitzen hasita
osagarri on izan liteke
gimnasia bisita.
Zinta batean ordubete
jardun gaitezke korrika...
Baina hori bai kotxea juxtu
ate aurrean utzita.

VI

Sarri nahasten ditugun arren
pertsonek ta objektuek,
(ez nintzen neskez bakarrik ari
barka gaizki ulertua)
aurtengo uda ere izan dadin
berezia, "perfektua",
irudimenak bete dezala
irudiaren lekua!